

LITERATURA

## 'Egungo euskal poesiaren historia' osatu du kritikari talde zabal batek

Kalean dira nobela eta poesiari buruzko aleak, eta laster ipuinei buruzkoa egingo da. 'Euskal literaturaren hiztegia' web gunea sortu du EHUko Euskara Institutuak

04.04.09 - FELIX IBARGUTXI| DONOSTIA.

DV. Euskal Herriko Unibertsitateak *Egungo euskal poesiaren historia* liburua eman du argitara. Proiektu zabal bateko bigarren atala da hau: orain dela bi urte azken hamarkadetako nobelei buruzko alea plazaratu zen; laster beste ale bat aterako da, euskal nobelagintza eta zineari buruz; laugarren alea ipuingintzari buruz izango da; eta gero saiakera eta antzerkiaz beste liburu bana egiteko asmoa dago.

Jon Kortazar irakaslearen zuzendaritzapean, ikerlari talde bat osatu zen duela sei urte. Lehenbizi, azken hamarkadetako euskal nobelei buruzko liburua prestatu zuten eta orain poesiari buruzko liburua osatu dute hamar lagunok.

1978 eta 2001 urte-bitarteko poesi lanak aztertu dituzte ikerlariok. *Etiopia* da aspaldikoena, 1978koa, *Bitartean heldu eskutik berriena*, 2001ekoa. Aztertutakoen artean badaude idazle klasikoak, hala nola Gandiaga eta Lekuona; eta beste batzuk askoz gazteagoak dira, adibidez Kirmen Uribe.

Atzoko aurkezpenera azaldu ziren kritikari horietako batzuk, eta baita ere taldean hasi berriak diren bi lagun: Iratxe Martin eta Amaia Serrano.

Kortazarrek gogoan izan zuen Axun Aierbe, iaz hildakoa, eta adierazi zuen haren omenez dirulaguntza eman duela Ibarako Udalak, hango langilea baitzen literatur kritikaria.

Taldearen zuzendariak gaineratu zuen «iturri berriak» erabili dituztela liburrako artikulua osatzerakoan, «bestela ikerkuntza ezin baita berri. Olerki-liburuak ez ezik, hainbat gauza hartu ditugu aintzat: errezitaldiak, poesia ikuskizunak, poeten talde berriak, lehiaketa eta sariketei buruzko iritziak, erreportajeak...».

### Hiztegi elektronikoa

Bestalde, *Euskal literaturaren hiztegia* izeneko web gunea aurkeztu zuten atzo Pello Salaburuk eta Francisco Javier Rojok, Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskara Institutuaren izenean. Hau da helbidea: [www.ehu.es/ehg/literatura](http://www.ehu.es/ehg/literatura)

Adierazi zutenez, 150etik gora literatur lan buruzko informazioa dakar orain web guneak, eta asmoa dute berrehungarrenean laster heltzekoa. Maila dibulgatiboan



Goian, Egaña, Retolaza, Serrano eta Otaegi; behean, Kortazar, Rojo, Billelabeitia eta Martin. /USOZ

<< 1 2 >>

### LIBURUA

**Izenburua:** *Egungo euskal poesiaren historia*.

**Argitaratzailea:** EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Artikuluen egileak

Jon Kortazar (Bernardo Atxagaren *Etiopia*, Juan Mari Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* eta Kirmen Uriberen *Bitartean heldu eskutik*).

Ur Apalategi (Xabier Montoiaren *Anfetamiña* eta Juanjo Olasagarreren *Bizi puskak*)

Alvaro Rabelli (Itxaro Bordaren *Bizi-tza nola badoan*, Joseba Sarrionandiaren *Marinel zaharrak* eta Amaia Iturbideren *Gelak eta zelaia*).

Lourdes Otaegi (Bitoriano Gandiagaren *Denbora galdu alde* eta Xabier Leteren *Biziaren ikurrak*).

Angel Erro (Iñigo Aranbarriren *Dordokak eta elurrak* eta Koldo Izagirrerren *Non dago basque's harbour*).

idatzitako artikulu nahiko luzeak irakur daitezke hor, eta lehen aipatutako kritikari talde hori bera ari da web gunea elikatzen, Kortazarrek koordinatuta. Literatur lanei buruzko artikuluak bukatutakoan idazleei buruzkoak jarriko dituzte ikusgai.

Francisco Javier Rojo (Mikel Lasaren *Memory Dump* eta Amaia Lasaren *Geroaren aurpegia*).

Miren Billelabeitia (Aurelia Arkotxaren *Atari ahantziak* eta Rikardo Arregiren *Kartografia*)

Ibon Egaña (Harkaitz Canoren *Kea behelainopear bezala*, Karlos Linazasororen *Euriaren eskuak* eta Jose Luis Otamendiren *Lur bat zure minari*).

Axun Aierbe (Tere Irastortzaren *Manual debozio gabecoa* eta Juan Kruz Igerabideren *Mailu isila*).

Iratxe Retolaza (Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea*).